


# GEO<sup>ren</sup> Mundua

M A R O K O


Marokoko akrobatek basamortuko herri mugakidetan eta Atlas mendikatearen inguruetan jarduten dute. Itzulipurdi eta jauzien truke diru pixka bat eskuratzen dute elkarrekin banatzeko. Baina ez da kale-artista talde arrunt bat, Marokoko Akrobata Anaidiko akrobata sakratuak dira, "Sidi Hamid ou Moussaren Semeak", santuaren babespean bidaiatu ta jokatzten dutenak eta "baraka" (bedeinkazioa) berekin eramaten ikusle guztientzat.

Film hau berberiar akrobaten mundu harrigarri-rako bidaia da euren kide gazteenetako baten, 14 urteko Mustafa izeneko mutilaren eskutik egina. Ahmed Houzali, Anaidiko aitzindari zaharrak erakutsiko dio akrobatagai gazte-ari ez bakarrik akrobazien artea, baita "Sidi Hamid ou Moussaren Seme" izatearen egiazko esanahia ere.

Uztaren Urteroko Jaialdia ospatzen den Marrakesko Djema el Fna plazan egiten dituzte saiorik ikusgarrienak akrobata sakratuek. Suge-sorgintzailez eta merkatuko jendetzaz inguratutik etortzen dira hona Anaidiko artistak, ez Marokotik bakarrik, baita herrialde urrunetatik ere, euretako asko ospetsuak baitira Europako ta Amerikako zirku famatuetan. Mustafa gaztearen ametsa atzerriko zirkuren batean lana eskainiko dion talentu bilatzailearen bat aurkitzea da. Beste batzuek, berriz, nahiagoko dute Atlas zabaleko herrigune guztietara "baraka" eramaten jarraitzea.



GEO<sup>ren</sup>  
Mundua  
M A R O K O



Akrobata Sakratuak  
M A R O K O

# GEO<sup>ren</sup> Mundua



M A R O K O

Akrobata Sakratuak



KULTURA SAHIA



ARGITARAZTZAILEA  
CAN - BERTXA - ZEPIN  
BERRI BAKETZAILAKIA

